

Bilbo Zaharra

EUSKALTEGIA

"... zomorro
beldurgarri
bihurturik aurkitu zuen bere
burua"

Klasikoen

9. irakurketa jarraitua

ekainak 9 **ARRIAGA**

METAMORFOSIA



FRANZ KAFKA

ostigaitze.com, ghalia (Chalga) (Luzeruko) Zorro eta bere erakargarritasunak, 2005

2016

Metamorfosis



HELBURUA

Klasikoen irakurketa jarraitua gure ikasleen artean girotzeaz batera, irakurriko dugun liburuaren balioa eta itzulpenaren garrantzia nabarmentzea dugu jarduera-sekuentzia honen helburu nagusia.

HELBURU ZEHATZAK

- ❖ Ekainaren 9an Arriagan izango den Klasikoen 9. irakurketa jarraitua euskaltegian girotzea.
- ❖ Liburu bat klasiko zerk bihurtzen duen aztertu eta klasikoak euskaraz ere gozatu ahal izateko itzultzaileen lana nabarmentzea.
- ❖ *Metamorfosia*, aurten 100 urte beteko dituen klasikoa, gure ikasleei ezagutaraztea.
- ❖ *Metamorfosia*-ren zenbait pasarte irakurriz edota entzunez ikasi eta gozatzea.
- ❖ Liburuak lantzen dituen gai nagusiez jardutea eta gogoeta egitea.
- ❖ Irakurketan ikasleek izango duen esperientzia errealera hurbiltzea.

METAMORFOSIAK 100 URTE

IRAKURKETA GIROTZEKO ZENBAIT JARDUERA

0. Sarrera-gonbidapena (15´)
1. Zer da klasikoa? (20´)
2. Euskal klasikoak vs. klasikoak euskaraz (20´)
 - 2.1. hamaika itzulpen
 - 2.2 hamaika izenburu
3. Kafkaren aizkora (20´)
4. Kafkaren bizitza (30´)
5. Kafka eta Metamorfosia iruditan (40´)
6. Gregor Samsa zomorroa
 - 6.1 Hasiera irakurri eta marraztu (15´)
 - 6.2 Hasiera berridatzi
 - 6.3 Berridatzitakoa marraztu (30´)
 - 6.4 Ikasbilekoa irakurri
7. 100 urte eta gazte! (60´)
8. Egungo Gregor Samsaren bila (40´)

***Jarduerak B1etik aurrera egiteko modukoak, 1/5/7 salbu (B2tik aurrera).**

ERABILITAKO TESTUAK

- ***Metamorfosia***. Franz Kafka [**Erein 2016**](#)

Itzultzailea: Anton Garikano

- [**ITZULTZEN DIRENAK**](#)

Berrian , 2016-02-25 / [Iñigo Astiz](#)

- [**'Metamorfosia' edo Franz Kafkaren "aizkora-lana"**](#)

Deia, 2016-02-29/Iñaki Mendizabal Elordi

- [*Sautrelan Metamorfosia*](#) eitb-n 2015/10/24

- [**Kafkaren 'Metamorfosia' Bilboko irakurraldirako**](#)



[Bizkaia Irratia](#) 2016-03-01



SARRERA: GONBIDAPENA

Metamorfosiak 100 urte

BILBO ZAHARRA euskaltegiko ikasle-irakasleok *Klasikoen irakurketa jarraitua* antolatu dugu bederatzigarrenez, ikasturtearen amaieran eta “Ikasleen jaia” ospakizunaren barruan. Irakurketa eta jaia.

Literatura-jardunaldi berezia izaten da. Urtean behin, euskarazko liburu *klasiko* bat irakurtzen dugu 400 bat lagunaren artean. Irakurle bakoitzak pasarte labur bat irakurtzen du eta ondoren datorrenari ematen dio txanda. Arriaga antzokian, hamabi orduz, goizeko zortzietatik arratsaldeko zortziak arte.

Aurreko urteetan, Axularren *Gero*, Mogelen *Peru Abarca*, Jon Miranderen *Haur besoetakoa*, Saizarbitoriaren *Hamaika pauso*, Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik panpox*, Bernardo Atxagaren *Obabakoak*, Gabriel Arestiren *Harri eta herri*, iaz Sarrionandiaren *Narrazioa Guztiak* eta aurten, **Franz Kafkaren *Metamorfosia***.

Izan ere, **aurten 100 URTE bete dira Kafkak “Metamorfosia” idatzi zuela**, eta guk urteurren hori baliatu nahi dugu itzulpenaren garrantzia eta balioa aldarrikatzeko.

Munta handikoa, dudarik gabe, aurtengo **ekainaren 9an** eta, beti bezala, **Arriaga antzokian** aurrera eramango dugun irakurketa-jaialdia. Hamabi ordu, laurehun bat irakurle, berrogeita hamar eragile sozial...irakurle zein entzule, ***denok zaudete gonbidatuta literatura eta euskara uztartzen dituen festa honetara.***

[KLASIKOEN IX.IRAKURKETA JARRAITUA](#)

1. JARDUERA

Zer da klasikoa?

EGITEKOA: irakurri Italo Calvinok klasikoa definitzeko idatzitakoa eta komentatu taldean honako galdera hauek:

- Ados zaudete definizio horrekin?
- Zer edo zer erantsiko zenukete?
- Irakurritakoaren arabera, klasikoa da Metamorfosia? Zergatik?
- Klasikoak euskarara ekartzea merezi duela uste duzu? Zergatik?
- Aipatu eta zerrendatu taldean 10 liburu klasiko.

Zer da klasikoa?

1. Klasikoak jendeak «berrirakurtzen» (eta ez «irakurtzen») dituen liburuak dira.
2. Klasikoak irakurri dituenarentzat altxorra dira, baina orobat dira altxorra inoiz irakurri ez eta lehenengoz irakurtzen dituenarentzat.
3. Klasikoak eragin berezia duten liburuak dira, ahantzezintzat hartzen direlako, edo inkontziente kolektibo nahiz indibidualarekin bat eginda memoriaren tolesduretan galtzen direlako.
4. Klasikoa berrirakurtzea lehen aldiz irakurtzea bezainbesteko aurkikuntza da
5. Edozein klasiko irakurtzea berrirakurketa da.
6. Klasikoa esan nahi duena inoiz esaten bukatzen ez duen liburua da.
7. Klasikoek gure irakurketaren aurretik jasotako irakurketen arrastoa dakarte berekin, eta atzetik dakarte kultur(et)an utzi duten arrastoa.
8. Klasikoek diskurtso kritikoen hauts andana eragiten dute, baina guztiak astintzen dituzte gainetik.
9. Klasikoak zenbat eta entzutez ustez gehiago ezagutu, irakurtzean are eta berriago, ustekabeago, ezohiko diren liburuak dira.
10. Klasiko deritzo unibertsoaren baliokide gisa itxuratzen den liburuari, antzinako talismanen pare.
11. Zure klasikoa indiferentea ez zaizun hura da, zeure burua harekiko edo haren aurka definitzeko balio dizuna.
12. Klasikoa beste klasiko batzuk baino lehenago dagoen liburua da, baina lehenbizi besteak eta gero hura irakurri dituenak berehala antzematen du haren lekua genealogian.
13. Klasikoak aktualitatea hondoko zarata huts bilakarazten du, baina aldi berean ezin du hondoko zarata horrez beste egin.
14. Klasikoa hondoko zarata bezala darraiena da, are aktualitaterik bateraezina nagusitzen denean ere.

2. JARDUERA *Euskal klasikoak vs. klasikoak euskaraz.*

Irakurlearen gogoan geratzen diren liburuak dira klasikoak. Asko dira Nazioarteko Literaturan ahaztezin bihurtu diren liburuak, hizkuntza askotara itzuliak, euskarara ere bai noski!

1. Egitekoa: lotu liburuen egile eta liburuen jatorrizko izenburuak, euskarazko izenburu eta itzultzaileekin.

HAMAIKA ITZULPEN...

Die Verwandlung (Franz Kafka, 1915.)	A	Arrotza. (Xabier Galarreta)	1
À la recherche du temps perdu. (Marcel Proust, 1913-1927.)	B	Metamorfosia (Anton Garikano)	2
L'étranger (Albert Camus, 1942.)	C	Denbora galduaren bila (Joxean Elozegi)	3
The Old Man and the Sea (Ernest Hemingway, 1952.)	D	Ivan Ilichen heriotza (Xabier Mendiguren Bereziartu)	4
Bartleby the scrivener. (Herman Melville, 1853.)	E	Marinela (Joseba Sarrionandia)	5
The Sound and the Fury (William Faulkner 1929.)	F	"Azken hitzordua" (Xabier Olarra)	6
O marinheiro (Fernando Pessoa, 1915)	G	Muino gaineko etxea (Koldo Biguri)	7
Smert Ivana Ilitxa (Lev Tolstoi, 1886.)	H	Bartleby eskribatzailea (Juan Garzia).	8
In Coold Blood. (Truman Capote, 1966)	I	Agurea eta itsasoa (Joxe Mari Iturralde)	9
La Casa in colina (Cesare Pavese, 1949)	J	Hotsa eta ardaila (Miren Garikano)	10
A gyertyák csonkig égnek (Sándor Márai, 1942)	K	Odol hotzean (Xabier Olarra)	11

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K

Kafka euskaraz? Bai horixe!

Euskaraz baditugu itzuliak Kafkaren [hainbat lan](#), esaterako, *Bizialdian argitaratutako lanak* (Naroa Zubillaga itzultzaile) edo *Prozesua* (Anton Garikano itzultzaile). *Metamorfosia* **hirutan** izan da itzulia: Xabier Kintanak lehenik 1970ean, *Itxura aldaketa* (Kriseilu); Rufino Iraolak, 2000. urtean (Hiria), eta azken bertsioa Anton Garikanok, 2016an Erein argitaletxearekin.

2.Egitekoa: izenburuak hizkuntzekin lotu behar dituzue.

HAMAIKA IZENBURU...

□ □ □ □

Transformación

Die Verwandlung

The Metamorphosis

μεταμόρφωση

Metamorfozǎ

রূপান্তর

μεταμορφозα

Métamorphose

Metamorfosis

Itxura aldaketa

Frantsesa, arabiera, ingelesa, errumaniera, bengalera, errusiera, alemana, gaztelania, greziera, euskara...

3. JARDUERA

Kafkaren aizkora

(30´)

EGITEKOA: irakurri Kafkak eta Arestik Literaturaren zereginari buruz esandakoak. Zure iritzia jakin nahi dugu.

- ❖ Literatura zerbaitekin lotu beharko bazenu, zein hitzekin lotuko zenuke? Zergatik?

1. Aizkora 2. Harpa 3. Mailua 4. Larrosa 5. Itsasoa 6. Luma

Gabriel Aresti

“POESIA MAILU BAT DA”

Esanen dute

hau

poesia

eztela,

baina nik

esanen diet

poesia

mailu bat

dela ("Poesia", 1963)



Franz Kafka

“Liburua aizkora bat da”

“Irakurtzen dugun liburuak kaskezurrean ukabilkada bat jota esnatzen ez bagaitu, zertarako irakurri? Liburuak aizkora izan behar du, gure baitan daramagun izotzezko itsasoa hautsiko duen aizkora”.

(Anton Garikano itzultzaileak ekarri ditu gogora Franz Kafkaren hitzak, [berrian](#)).



Zeuren idazle: arrazoitu hemen zure aukera eta saiatu ahalik eta azalpen “literarioenena” ematen.

4. JARDUERA

Franz Kafka

(30´)

Egitekoa: jarraian, Franz Kafkaren bizitzari buruzko testu bi irakurriko duzue binaka. Gero, elkarri irakurritakoa kontatu eta erantzun beheko galdetegia.

1. Franz Kafkak ama-hizkuntza zuen horretan idatzi zuen. Zein hizkuntzatan?
a. Frantsesez b. Alemanieraz c. Txekieraz
2. Txikitan, sei urte bete baino lehen, familiako norbait hil zitzaion. Zein?
a. Arreba bat b. Hiru anaia c. guraso biak
3. Familia gorabeherak izan zituen: ez omen zen batere ondo moldatzen...
a. Amarekin b. Arrebarekin c. Aitarekin
4. Zein ikasketa egin zituen?
a. Ekonomia-ikasketak b. Zuzenbide-ikasketak c. Teologia-ikasketak
5. Kafka “kavka” hitzetik dator. Zer esan nahi du abizen horrek txekieraz?
a. Mozorroa b. Aranondoa c. Erroia, Belea
6. Zein hizkuntza menperatzen zituen ondo?
a. Txekiera, ingelesa b. Frantsesa, Txekiera, Alemaniera c. Alemaniera
7. Non ezagutu zuen Dora Diamant, maitale izan zuen judutar gaztea?
a. Vienan b. Pragan c. Berlinen
8. Nolakoa zen Kafka ezagutu zutenen arabera?
a. Bizkorra, umore berezikoak b. Haserrekorra, azkarra c. Alaia, lotsatia
9. *Metamorfosis* liburuko pertsonaiak izena du.
a. Franz b. Gregor c. Milena
10. Sendaetxe batean hil zen Vienatik hurbil...
a. Tuberkulosiak jota b. Ahuleziak jota c. Minbiziak jota



Kafka Biografia

Franz Kafka

A

Kafka 1883ko uztailearen 3an jaio zen, Pragan, Bohemian —garai hartan Austria-Hungariako Inperioaren parte zen— alemanez egiten zuen erdi mailako familia judu batean. Aitak Hermann Kafka zuen izena (1852-1931) eta txikizkako merkataria zen. Amaren izena Julie Kafka zen (1856-1934), honen ezkongai abizena Lowy zelarrik. Bi anaia izan zituen, Georg eta Heinrich, Kafkak sei urte bete baino lehen haur zirelarik hil zirenak; hiru arreba ere izan zituen, Elli, Valli eta Ottla izenekoak.

Bere ama-hizkuntza alemana izan bazen ere, Kafkak txekiera ere ikasi zuen, bere aita Písek-etik hurbil dagoen Osek izeneko hirikoa baitzen. Hiri horretan, Kafkaren aita txekieraz egiten zuen komunitate judutarraren kidea zen ("Kavka" izenak "erroi" esan nahi du) eta, semeak bai alemana, bai txekiera ondo menperatzea nahi zuen. Kafkak frantsesa eta Frantziako kultura ere ezagutzen zituen. Izan ere, bere autorerik gustukoenetarikoa bat Flaubert izan zen; Kafkak Napoleon ere estimatzen zuen.

1889tik 1893ra, Kafkak lehen mailako irakaskuntza (alemanez *Deutsche Knabenschule* delakoa) egin zuen Masná St. kalean (Fleischmarkt), Pragan, eta, geroxeago, institutura joan zen Staroměstské náměstí-ra (Kinský Jauregian kokatuta), non 1901. urtean Batxilerreko azterketa egin zuen. Jarraian, Carolina-ko Unibertsitatean, Pragan, zuzenbidea ikasi zuen eta legetan doktoretza lortu zuen 1906. urtean. Ondoren, urte batean zehar dirurik irabazi gabe seguru enpresa batentzat lan egin zuen lan istripuen agente bezala. Orduan idazten hasi zen. Askotan lan hau "Brotberuf"-tzat jo zuen —dirua baino ez lortzeko lanbidea.

1917an, tuberkulosia izan zuen eta honek sarritan susperraldiak izatera behartu zion, familiaren babesari eduki zuelarrik, batez ere, bere arreba Ottlarena, zeinarekin oso ondo konpontzen zen.



Kafka Biografia

Franz Kafka

B

Ikasle garaian, ekintza literario eta sozialen erakundean parte hartu zuen. Fisikoki eta mentalki jendea txunditu egiten zuen bere ikuste txukun, zorrotz eta bere ume-itxuragatik, bere jokamolde lasai eta idorragatik eta bere adimenagatik, baita bere umoreagatik ere.

Kafkaren obran garrantzi handiko gaia da bere aita autoritarioarekin zuen harremana. 1920. urtearen hasieran, Milena Jesenská idazle eta kazetari txekiarrarekin garrantzi handiko harremana izan zuen eta 1923an Berlinera joan zen aldi labur batez, bere familiaren eraginagandik urruntzeko eta bere obran zentratzeko asmoz. Hiri horretan, Dora Diamant ezagutu zuen, 19 urteko gaztea, familia judu ortodoxo batekoa, zeina bere iraganean ghettotik alde egiteko gai izan zen. Dora bere maitale bihurtu zen eta eragin handia izan zuen Kafkak Talmud delakoagatik izan zuen interesaren inguruan.

Idazleak bere bizitza osoan zehar depresio klinikoa eta antsietate soziala jasan omen zuen. Honekin batera, migrainak, logabezia, idorreria, erlakaiztenak eta beste gaixotasun batzuk ere jasan zituen, denak estresak eta gehiegizko tentsioak eragindakoak zirelarik. Kafka tratamendu naturisten bitartez ahalegindu zen gaixotasunoi aurre egiten, besteak beste, landare-dieta eta esne pasteurizatu asko kontsumitu zituen. Azken hau izan zitekeen bere tuberkulosiaren sortzailea.

Honez gain, Kafkaren osasunak txarrera egin zuen tuberkulosia zela eta. Pragara itzuli zen eta geroago Vienatik hurbil zegoen gaixotegi batera joan zen tratamendu bat jasotzera. Bertan hil zen 1924ko ekainaren 3an ahulezia zela eta. Bere arazo fisikoen eraginak kalteak sortu zizkion eztarrian eta ondorioz jakiak irensterakoan min eragiten zion. Orduan zainpeko terapia garatu gabe zegoenez, ezin zuten elikatu (*Metamorfosis* liburuko Gregor pertsonaiarekin antzekotasun kutsua du, baita *Un artista del hambre* kontakizuneko pertsonaia nagusiarekin ere). Bere gorpua Pragara eraman zuten 1924ko ekainaren 11n Praga-Žižkov-eko Hilerri Judu Berrian. 41 urterekin zendu zen.

5. JARDUERA


Kafka eta Metamorfosia iruditan

EGITEKOA: entzun eta egin ikusitakoaren laburpen idatzia.

Metamorfosiak 100 urte bete zuela-eta, erreportajea eskaini zioten Eitb-ko Sautrela saioan. [**Sautrelan Metamorfosia**](#)

- Ikusi 10´ dirauen saiotxo. Entzun eta ikusitakoetatik oharrak hartu.
- Ondoren, Kafkaren erretratu idatzi laburra egingo duzu, gehienez ere 80 hitz erabiliz. Azpimarratu eta nabarmendu atentzioa eman dizuten ezaugarriak, xehetasunak eta abar.

(40´)





6. JARDUERA GREGOR SAMSA ZOMORROA

1. Egitekoa: irakurri *Metamorfosia* liburuaren **hasiera**- bertan, idazleak zehaztasun handiz azaltzen digu pertsonaia nagusiaren egoera- eta saiatu zomorroa, irudikatzen duzun bezala, beheko tartean marrazten. (15´)

Goiz batean, Gregor Samsa amets nahasiak izanda esnatu zenean, zomorro beldurgarri bat bihurturik aurkitu zuen ohean bere burua. Oskol antzeko bizkar gogorraren gainean zegoen, eta burua pixka bat jasoz ikusi zuen bere sabel konkor marroia, uztai formako gogortasunekin, eta ohearen tapakia, noiznahi erortzeko zorian, ez zen hura estaltzeko gai. Bere zango ugariak, gainerako gorputzaren aldean mehe-meheak, errukarri astintzen ikusi zituen.

“Zer gertatu zait?”, pentsatu zuen.

Marraztu hemen zure zomorroa eta alderatu emaitza zure taldekideekin.

6. JARDUERA GREGOR SAMSA ZOMORROA

2. Egitekoa: orain zure txanda izango da eta oso bestelako *Metamorfosia* irudikatu beharko duzu. Aukeratu eta deskribatu zeuk zure zomorroa edo nahi duzun hori: piztia, pertsonaia mitologiko edo historiko bat, supereroia... (30´)

Goiz batean, _____amets nahasiak izanda esnatu zenean,
_____bihurturik aurkitu zuen ohean bere burua.

“Zer gertatu zait?”, pentsatu zuen.

3.Egitekoa: irakurri ikaskideei, ahoz gora eta ozen, zure “metamorfosia” eta irudikatutakoa marraz dezatela entzun ahala. Komentatu taldean ea azalpen sinesgarria lortu duzun.

4.Egitekoa: lehen atala osorik irakurri nahi baduzu, *Ikasbilen duzu aukera.*

[Metamorfosia ikasbilen](#)

7. JARDUERA

100 urte eta gazte!

Metamorfosiak 100 urte bete baditu ere, ahantzezin izaten jarraitzen du egun irakurle askorentzat. Kafkaren narrazioak indar ikaragarria eta hainbat ñabardura eta interpretazio ditu. Horregatik, berriro irakurtzea ere gozagarri zaigu, ezustekoak emango baitizkigu beti.

EGITEKOA: jarraian liburutik ateratako zenbait pasarte izango ditugu irakurtzeko eta haien gainean taldean gogoeta egingo dugu. Bide batez, ahoz gorako irakurketa egokia praktikatu dugu. On egin! (60´)

1

“Ai ene –pentsatu zuen–, lanbide latza hautatu dut! Egunero-egunero, hara eta hona. Negozioak askoz neketsuagoak dira lantokian bertan arituta baino, eta horrekin nahikoa ez eta hor dago bidaiatu beharraren madarikazioa, tren-loturen kezka, otordu txar, gorabeheratsuak, jendearekiko harreman beti aldakorra, iraungaitza, inoiz sakontzen ez dena. Hor konpon denak!”. (8.or.)

- ❖ *Zein du Gregor Samsak lanbide?*
- ❖ *Aukeratu taldean lanbide bereziki gogor eta nekagarriren bat. Zein den aipatu barik azalpena eman, ea zure ikaskideek asmatzen duten.*

2

Gregorrek atearen zirrikitutik ikusi zuenez, egongelako gasa pizturik zegoen. Ordu honetan aita arratsaldeko egunkaria irakurtzen aritzen zitzaion amari, eta batzuetan arrebari ere bai, baina orain ez zegoen inongo hotsik. Arrebak beti idazten zion irakurraldi haien berri emanez, baina agian ohitura galdu zuten azkenaldian. Dena isil-isilik zegoen, ordea, etxean norbaitek egon behar zuen arren. “Nire familia bai lasai bizi!”, esan zuen Gregorrek berekiko eta, bere aurreko ilunpeari adi-adi begira, harro sentitu zen gurasoei eta arrebari halako bizimodua eman ahal izan zielako, hain etxe ederrean. Zer egin orain, baina, bake, erosotasun eta zorion hark guztiak beldurgarri amaitu behar bazuen? Gogoeta horietan ez galtzeko, Gregor mugitzen hasi zen, bere gelan gora eta behera narrasean. (36-37.or.)

- ❖ *Gregorren familia arrunta da eta etxegiro lasaia ageri zaigu pasarte honetan. Egia ala Gezurra? Zergatik?*
- ❖ *Gregor, zirrikitutik begira, zerbaitek kezkatzen eta larritzen du. Zerk?*

3

Gregorrek argi zeukan Greteren asmoa: ama seguru utzi eta bera hormatik **uxatzea**. Saiatzea zuen! Koadroaren gainean eseri zen. **Amore eman** baino nahiago zuen Greteri aurpegira salto egin.

Baina Greteren hitzek **estutasuna** sortu zioten amari: alde batera egin, horma-paper loredunean orban beltz erraldoi hura ikusi, eta Gregor zela **jabetu** aurretik oihukatu zuen ahots zakarrez:

–Ai ene, ai ene!

Eta besoak zabaldua **jausi** zen sofaren gainera, erabat etsita bezala, zirkinik egin gabe.

–Aizu, Gregor! –hots egin zuen arrebak, ukabila **goratu** eta zorrotz begira.

Metamorfosiaz geroztik, zuzenean **jaulki** zizkion lehen hitzak izan ziren. Ondoko gelara joan zen **lasterka**, ama zorabiotik suspertzeko esentzia baten bila; Gregorrek ere lagundu nahi zuen –oraindik astia zegoen koadroa salbatzeko–, baina kristalari gogor itsatsita zegoen, eta indarra behar izan zuen askatzeko; orduan, bera ere lasterka joan zen ondoko gelara, arrebari aholkuren bat eman ahal balio bezala, **garai batean** bezala; baina haren atzean geratu behar izan zuen, egonean; hainbat botilatxoren artean miatzen ari zela, arrebak buelta eman eta **beldurtu** egin zen; botila bat lurrera jausi eta apurtu egin zen; printza batek Gregor aurpegian zauritu, eta botika erregarri batek **blaitu** zuen; denbora gehiago galdu gabe, Gretek ahal zituen botila guztiak hartu eta haiekintxe joan zen amarengana korrika; oinaz bultzatuta itxi zuen atea. Gregor, berriz, bere erruz agian hiltzorian zegoen amarengandik aparte zegoen; ezin zuen atea ireki, amaren ondoan egon behar zuen arreba ez uxatzeko; itxarotea beste zereginik ez zeukan; eta bere buruaren kontrako erantzukiz eta kezka zeterik, **narrasean** hasi zen denean –horma, altzari eta sabai–, eta, gela osoa bere inguruan biraka hasi zitzaionean, bere etsipenean, mahai handiaren erdira erori zen. (57-58.or.)

❖ *Nabarmendutako hitzei sinonimo bana lotu:*

korrika, etsi, erori, herrastaka, ikaratu, busti, aspaldian, bota, ohartu, aldentzea, larritasuna, altxatu.

METAMORFOSIAK 100 URTE

- ❖ *Istoria ez dugu zapuztu nahi; beraz, zer gertatuko ete den jakin nahi duenak liburua irakurri beharko du!*

8. JARDUERA

Egungo Gregor Samsaren bila

(40´)

EGITEKOA: etxeko gelazuloan, bakartuta eta zomorrotuta ageri zaigu Gregor Metamorfosian. Lanetik kaleratu dute, etxekoek eta inguruko guztiek baztertu egiten dute jasan duen itxura aldaketaren ondorioz.

Bazterketa eta inkomunikazioa dira liburuko gai nagusietakoak, biak ala biak gaurkotasun handikoak. Izan ere, 100 urte geroagoko gure gizartean ere badira eredu jakin batzuk jarraitzen ez duten pertsona “desberdin” edota “baztertu”ak.

Taldean sailkatu 1etik 7rako baztertze-eskalan giza-talde hauek.

- Aukeratu zure ustez baztertuen eta egin haren defentsa-abokatuarena.
- Eztabaida-saioa.



Zaharrak



itsusiak




nerabeak



frikiak



eskaleak



langabetuak



lodiak

METAMORFOSIAK 100 URTE

ERANTZUNAK

2.jarduera

1.

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K
2	3	1	9	8	10	5	4	11	7	6

2.

□□□□ (arabiera) **Transformación**

Die Verwandlung (alemana)

The Metamorphosis (ingeleza), **μεταμόρφωση** (greziera)

Metamorfoză (errumaniera) **রূপান্তর** (bengalera)

μεταμορφозα (errusiera)

Métamorphose (Frantsesa) **Metamorfosis**

Itxura aldaketa

4.jarduera

1.b/2.b/3.c/4.b/5.c/6.b/7.c/8.a/9.b/10.b